Conservatorio Profesional de Música
FRANCISCO ESCUDERO
Musika Kontserbatorio Profesionala

EUSKO JAURLARITZA · GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA SAILA · DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

# 2024/2025 IKASTURTERAKO
# PROFESIONALERAKO SARBIDE-PROBAK
# IRAILEKO DEIALDIA
# MATRIKULAZIORAKO ARAUAK

MATRIKULAZIO ETA TASA-ORDAINKETA: irailaren 18tik 20ra (azken egun honetan13:00ak arte).

Matrikula IKASGUNEA plataformaren bidez egingo da, gure webetik: www.conservatorioescudero.eus.

Plataforma horretan sartzen den lehenengo aldiz bada, erregistratu egin beharko da "Izen-ematea" sakatuz.
Lehenengo aldiz ez bada, bestetan erabilitako Posta elektronikoko helbidea eta Pasahitza sartu beharko dira.
Zalantzaren bat sortzen bada, ikasgunea@hezkuntza.net helbidera idatz daiteke.

Gure web orrian, IKASGUNEA atalean, "Erabiltzailearen Gida" kontsulta daiteke.

Gero, "Administrazio prozesuak" barruan "Sarbide frogen eskaera eta Lehiaketak" atalean sartu beharko da.

PROBEN EGUNETAN AURKEZTEKO DOKUMENTAZIOA:
- NANa edo Pasaportea.
- Epaimahaiari emateko aurkeztuko diren obra edota estudio guztien partituren kopia bat.

PIANOJOLE LAGUNTZAILEA: Hautagaiak pianojole laguntzailea eraman beharko du probara honako espezialitateetan: biola, biolina, biolontxeloa, kantua, klarinetea, kontrabaxua, fagota, flauta, oboea, perkusioa, saxofoia, tronboia, tronpa, tronpeta eta tuba. Ez baldin badauka pianojolerik, gure bulegoan kontsulta dezake.

ZENBAIT ESPEZIALITATETARAKO AURKEZPENA: Espezialitate bat baino gehiagotan aurkeztuz gero, espezialitate bakoitzeko matrikula bat egin beharko da, baita espezialitate bakoitzeko tasa ordaindu ere. Hautagaiak espezialitate batean baino gehiagotan plaza lortzen badu, **bakar batean matrikulatu ahal izango da**.

KIDEKO INSTRUMENTUA: Zenbait espezialitatetan ikasleek kideko instrumentuak aukera ditzakete probak egiteko, honako taularen arabera:

| AUKERATUTAKO INSTRUMENTUA | KIDEKO INSTRUMENTUA |
|---|---|
| Organoa | Klabezina eta Pianoa |
| Klabezina | Pianoa |
| Pianoa | Organoa eta Klabezina |
| Baxu elektrikoa | Kontrabaxua |
| Gitarra elektrikoa | Gitarra |
| Biolina | Biola |
| Biola | Biolina |

BESTE INFORMAZIOA: Zalantzaren bat izanez gero, jo ezazu bulegora.